

noaua



MILA "APELLIDU" ABIZENDU DIRA BURUNTZALDEAN

Azkarra eta erraza da "apellidutik" abizenera jauzi egiteko prozedura / 12-13

ARGAZKIA: AIURRI



NOAUA

Pelaioenea eraikin berritua larunbatean inauguratuko dute Kalezarren / 05



NOAUA

650 Usurbil Bizi egitasmoak aplikazio berria du telefono mugikorretarako / 06



NOAUA

GuraSOS: "Lixibiatuak konpostatze planta batera eramatea oso larria da" / 08



KORRIKA, IRUDITAN / 14-16

DATOZEN BI ASTEETAN EZ DA ALDIZKARIRIK ARGITARATUKO


Hurrengo zenbakia: NOAUA 986: Apirilaren 12an

Ondo pasa!

ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



ERRIGORAKO PRODUKTUEN
Bi saski
zozketatuko ditugu
NOAUA!ko bazkideen artean



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Landa garapeneko proiektuei gorazarre

Gipuzkoako landa garapen proiektuei errekonozimendua egin asmoz, Landaola Federazioak VII. Landaola Sariak banatu zituen aurreko astean Sutegin.

Landaola, Gipuzkoako landa eremuaren garapenaren alde lan egiten duen erakundea da eta sei elkarte hauek osatzen dute: Behemendik, Deba-Garaiak, Debemenek, Goimenek, Tolomendik eta Urkomek.

Erakunde Pribatuaren saria
Makatza baserriarentzat izan da aurtengo saria. Familia

ondareari segida eman nahian, Aitor eta Agurtzane Gabiriak gurasoek urteetan eta urteetan baserrian egindako lanari jarraipena eman diote Legezpiko Makatza baserrian.

Erakunde Publikoaren saria
Bergarako Udalarentzat, Oxirondo azokan Elika Enea sortzeagatik.



Sari banaketa ekitaldia aurreko ostegunean egin zen Usurbilen.

Emakumeak Landa Eremuan saria
Urola Kostako Hitzez Elkartea. Landaolaren esanetan, "funtsezko garrantzia izan du landa-eremuko emakumeen ongizatean eta autonomian".

Urteetako ibilbideari saria
Eli Arrillaga artzain-lanetan ari da 1980tik. Ardi latxen artaldea du eta berak ekoiztutako gatzagi naturala baino ez darabil gazta egiteko.

Garbigune mugikorra, Usurbilgo kaxkoan

Martxoaren 21etik aurrera, garbigune mugikorra Usurbilen izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Martxoaren 28an osteguna, garbigune hau Aginagara eramango dute.

1964an jaiotako bazkaria ekainaren 1ean izango da

Ekainaren 1ean bilduko dira bazkaritarako. Era honetan, 60. urtemuga ospatuko dute. Non elkartuko diren, informazio hori ez dugu jaso oraindik. Dena den, interesa duenak telefono zenbaki honetara deitu beharko du: 647 458 997 (Mari Jose).

1952an jaiotako bazkaria apirilaren 27an egingo da

Apirilaren 27rako antolatu dute kinto bazkaria. Artzabalgogojatetxean batuko dira. Oturuntza eguerdiko 14:00etan hasiko da. Apirilean egingo bada ere, izena emateko epea zabalik da honez gero. Horretarako, deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Elkarte arteko mus txapelketako finala

Apirilaren 27an jokatu da Kalezarko Peña Pagola elkartean. Elkarte denak gonbidatu dituzte. Parte hartu nahi duen bazkide bakoitzak bere elkartean eman beharko du izena alde aurretik. Bazkaria antolatu dute eta bazkalosterako ligaxka formatuko txapelketa.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aiaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Azalaldatzen (6)

Zozoak kantu egin du adar gainetik. Hori pentsatu dut behintzat. Ipuin bat idazteko moduko gertaera bizitzen ari naizela ere pentsatu dut, eta horregatik, Sherlock Holmes gorpuztera ausartuko naiz.

Eta azalaldatze guztiak direnez zerbaitenak, hau, Benedict Cumberbatch-ena.

Ez dizkidazu, irakurle hipotetiko, britainiarraren eta nire arteko amildegiaeren ertzak bistarazi behar, badakit bate-tik besterako jauziak zenbat neurtzen duen, baina ze ostia!, utzidazu dedukzioaren maisu izaten gaurkoagatik bakarrik. Eta uzten ez badidazu, bost axola dit, jada badaukat eta gurutze-bide ederra gainean. Gainera, hainbeste bahiketa eta bahiketa ondorekin, burua joaten ari zaidalagehituko nuke. Hemendik bizirik ateratzen banaiz, ederki sufrituko dute hau egingakoek.

Dena sagardotegian hasi zen. Denboraldia iristen da, eta urteko sagardoa dastatzera behartuak sentitzen dira usurbildarrak. Baten batzuk jakingo dute ezberdintzen ona txarretik, baina hirugarren tragotik aurrera, guztiak berdintzen dira. Hala ere, intelektualarena edo jakintsuarena egitea bati baino gehiagori gustatzen zaio, eta txotxeroaren ondoan jarrita, kupel onak bakarrik zabaltzeko eskatzen hasten dira: hirua eta bedertzia.

Mahaitik altxa, eta han joan ginen horietako batera. Apenas bustitzen nituen ezpainak, detektibe onak zentzumenak adi izan behar baititu. Taldekoek tragoa edan orduko jartzen zuten berriro ere edalontzia edabe gehiagoren antiaz. Gu-txi edaten ari nintzela aurpegitratzen zidaten, baina nik nirean tinko mantendu behar nuen. Zergatik galdetuko duzu. Erantzuna sinplea da: susmoak nituen. Bai, susmoak, edandakoa ez zen sagardo-sagardoa. Beste zerbait edaten ari ginen, eta hori ezagutu behar nuen.

Hemengo sagarrondoek sagar nahikoa ematen ez dutela gauza jakina da. Kanpotik ekarri ohi dute ekoizpena osatzeko, eta bertakoarekin nahastu munduaren sagardo-egarria ase dadin. Tropelean etortzen dira autobuska, eta gero sen primitiboenaz hartzen dituzte kaleak. Hor atzean zerbait zegoen, konbentzituta nengoen. Pozoia izan zitekeen. Sagardogileen sektorea mundu guztia pozoitu nahian jardun zitekeen. Zergatik, ordea? Konplot na-

"BAT-BATEAN, KUPELETATIK ZETORREN GAZTE BAT HANKAZ GORRORI ZEN. IRRISTATU EDO EGINGO ZEN!"

zional bat, agian. Frogak behar dira horretarako.

Begia zorroztu, eta ohartu nintzen edalontzietako edariaren kolorean, aparrean, usainean. Enologoak nola, neure baitarako gordetzen nuen dedukzioa: sarkortasuna x, azidotasuna y, kolorea z. Diagramak eta formalak garezurraren barruan marrazten nituen lagunek gehiago edatera behartu bitartean. Txuleteren deiarekin azkar asko hartu zuten mahairako bidea. Pentsatzeko une aproposa, haragi gordinaren gainera sarraskijaleak bezala jausten zirena.

Sagardotegia festa handi bat zen. Jendea hara-hona. Zerbitzariak beste horrenbeste. Parrilaren usaina atmosferan itsatsita. Garrasiak, barreak, algarak. Mingainak geroz eta lodiago, birikak geroz eta puztuago. Erakusleihu hutsa zen hangoa, baina zeren erakusleihu? Bat-batean, kupeletatik zetorren gazte bat hankaz gorrori zen. Irristatu edo egingo zen, zerbait normala gainean zeramanarekin. Baina zutitzen ez zela ohartuta, berehala hurbildu zitzaizkion zerbitzariak eta lagunak. Ez zuen erantzuten, eta zerbait gertatu zitzaiola geroz eta garbiago neukan. Abaila betean iritsi nintzen gaztearengana "medikua naiz!" garrasika. Ez zeukan pultsurik, eta ospitalera lehenbailehen deitzeko eskatu nien bertakoei. Kontua arnasa hartzea zen, bestela, bertan galduko genuen. Erreanimazioarako maniobrak egitera abiatu nintzen. Alferrik bezain berandu izan zen gutzia. Krimenaren eszena zen jada.

Apirila liburuaren hilabetea izango da

Apirilaren 2ko Haur eta Gazte Liburuaren Egunaren eta hila-ren 23ko Liburuaren Egunaren harira, hilabete berezia dute Sutegi udal liburutegian, nahiz bertatik NOAUA!ri gogorarazi dioten moduan, "egunero den Liburuaren eguna. Liburuei atxikitako ekintzak eskaintzen jarraituko dugu apiriletik hararago ere", iragarri dute.

Apirilak 15, astelehena

• 18:00 Irakur-jolas txokoa, 6-8 urte arteko haurrei eta haien gurasoei zuzendua. "Liburuak eta irakurketa partekatze ideiak eta baliabi-deak eskainiko dira".

Apirilak 23, asteartea

• 19:00 Xabier Mendigurenen *Oso latza izan da* (Elkar) kronika liburu literarioari buruzko solasaldia egilearekin berearekin. Oharra: liburuak eskuragarri Sutegin.

Apirilak 30, asteartea

• 18:00 Yolanda Arrieta Malaxetxebarriaren *Gutunak birramonari* (Denonartean) liburuaren aurkezpen-tailerria 8-10 urte arteko haurrentzat eta haien gurasoentzat.

• Izen-ematea: Sutegi udal liburutegian.

• Oharra: plaza mugatuak.

• Antolatzailea: Sutegi Udal liburutegia.



Yolanda Arrietak liburu berria aurkeztuko du apirilaren 30ean.



Pelaioenaren irekiera



Irekiera ekitaldia eguerdiko 12:30ean izango da.

Usurbilgo Emakumeen Etxea eta kalezartarrak biltzeko udal ekipamendua bateratuko dituen Pelaioenea irekitzera doaz. Kalezar erdigunean kokaturiko eraikinaren inagurazioa, larunbaterako, martxoaren 23rako iragarri dute, ekitaldion bueltan:

Martxoak 23, larunbata

- 12:00 Batukadarekin kalejira Mikel Laboa plazatik Kalezarrera.
- 12:30 Irekiera herrikoia.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Usurbilgo Emakumeon Etxea eta Belmonte Auzo Elkarteak.

Orbeldiko bidea "egoera tamalgarrian da"



"Zer bait gertatu behar ote du egoera konpontzeko?", herritar baten galdera.

Orbeldiko bidez kexu agertu da NOAUA!ra idatzi duen herrikide bat: "Azkeneko urtean hainbat zuhaitz erdi erorita daude argindar kableek heltzen dutela. Udaletxea eta udaltzaingoa jakinaren gainean egon arren, ez dute kasurik egiten eta ez dute arazoa konpontzen. Ez dituzte zuhaitzak mozten,

ezta kentzen ere. Arrisku oso larrian daude, bertatik egunero ehunka kotxe, autobus eta oinezko, jende asko pasatzen direlako. Zer bait gertatu behar ote du egoera konpontzeko? Orbeldiko bidea dagoen egoera, benetan tamalgarria da eta udaletxeak ez du ezer egiten. Argazkiek dena esaten dute".

Aginagako herri kooperatibaren lehen batzarra

Ostiral honetarako iragarri dute 19:00etan Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean. "Herri Kooperatibaren lehen Batzar Orokorra izango dugula jakinarazi nahi dizuegu. Bileran honetan, estatutuen onarpena eta jarraitu beharreko hurrengo urratsak eztabaidatuko ditugu. Zuen parte-hartzea garrantzitsua da, beraz, zuen iritziak eta ekarpenak entzuteko itzaroten zaituztegu", adierazi dute deitzaileek. Gaiok hartuko dituzte ahotan: estatutuen onarpena, Herri Kooperatibaren Fundazioa, hurrengo pausoak eta beste-lakoak.

Filosofatzeko saio berri bat Potxoenean

Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkartearen eskutik, filosofatzeko aukera izango da ostiral honetan, hilaren 22an, 18:00etan Potxoenean, Jakinmin-eko ordezkari Garazi Aizpuruak bideratuta.

Galdera bat izango du abiapuntu hitzorduak. Hortik aurrera, epaiketarik gabeko iritzien elkartruke askerako gunea izango da filosofatzea helburu izango duen bilgunea.

Plaza kopurua mugatua

Izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus plataforman. 15 lagunentzako lekua egongo da saioan.

Legebiltzarrerako hauteskundeak

Argitaratuko dugun hurrengo aldizkarirako apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen kanpaina betean izango gara. Egun horri begirako kontuan hartzeko zenbait data dituzte segidan:

- Martxoak 21: mahaikideak hautatzeko zozketa udalbatzarrean. Jakinarazpena, hurrengo egunetan.
- Apirilaren 11ra arte: posta bidezko bozkatzeko eskaera egiteko aukera Correosen.
- Apirilak 1-17: posta bidezko botoa hauteskunde-mahaira bidaltzeko epea.
- Apirilak 5-19: hauteskunde kanpaina.
- Informazio gehiago: euskadi.eus atarian.

KzGuneako ikastaroak

Martxoan arratsalde zabaltzen segiko dute KzGunea, hilaren 27ra arte, 16:00-20:00 artean. Datozen jai egunak tarteko, martxoaren 28tik apirilaren 7ra itxita egongo da. Hilaren 8tik aurrera, goizez, 9:00-13:00 artean zabalduko dute KzGunea. Hauek dira iragarri dituzten ikastaroak:

- Apirilak 8-19, 9:00-11:00 "Oinarrizko Internet. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi".
- Apirilak 22-26, 9:00-11:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".
- Apirilak 29-30, 9:00-11:00 "Online izapideak Osakidetzarekin".
- Informazio gehiago: Kale Nagusia, 37; 943 023 684; tutor.usurbil@kzgunea.net

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrena 8, USURBIL
943 37 00 08

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrena 2, 943 36 55 81



650 Usurbil Bizi telefono mugikorretarako aplikazioaren sustatzaileak.

Aplikazio irisgarri eta eleaniztuna, 650 Usurbil Bizi egitasmoarentzat

Sorreratik web orria badu, sare sozialetan dago eta aurrerantzean, telefono mugikorreko aplikazio propioa izango du 650 Usurbil Bizik, bestelako turismo eredua sustatzen ari den herri egitasmoak. Eskuragarri duzue Android eta IOS telefono mugikorretarako.

"Hilabete luzeetako lana izan da" erronka honen garapena, herri egitasmo honen dinamizatzaile Ines Azpiatzuk iragan asteko Potxoenerako aurkezpenean adierazi zuenez. Aurretik, alor honetan bazen beste aplikazio bat, 2016an Udalak Elhuyarrek inkeratzen sortutako "Adi Usurbil" izeneko baliatu dute. Orduko Harria Hitz ibilbide gidatua nork bere kabuz mugikorraren laguntzaz egiteko aukera ahalbidetzen zuen. 650 Usurbil Bizi aplikazioa bertan txertatu dute eta funtzio berriak erantsi. Aurrerantzean, beraz, "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatuak nork bere kabuz egin ahaliko ditu aplikazio honen laguntzarekin. "Herriko puntu interesgarriak aurkezten dizkigu", haiek modu irisgarrian

ikusteko aukera; besteak beste, zaintzari lotutakoak, edota "errotarren bideak, herri-auzoak". Horrez gain, bisita gidatuen agenda ikusi eta erreserba egiteko aukera eskaintzen du. Aplikazioa sei hizkuntzatan dago Elhuyarri esker.

Audiogida eleaniztuna

Hain zuzen, hizkuntza teknologietan aditu gisa parte hartu du Elhuyarrek egitasmo honetan. Azken belaunaldiko hizkuntza-teknologiak integratuak dituen Bidaide eduki kudeatzaileen plataformaz mintzatu zen bertako Hizkuntza eta Teknologia Unitatearen koordinatzaile Itziar Cortes Etxabe Potxoenerako aurkezpenean. "Audiogida eleaniztun eta irisgarria sortzeko bitarteko teknologikoak jarri ditu

Elhuyarrek Usurbilgo Udalaren esku".

Irisgarritasunaren bermea

Mugikorretarako aplikazioen garapenean aditua den Batura enpresak garatu du aplikazioa. Irisgarritasuna nola bermatu duten azaldu zuen Potxoenera lantegiko ordezkari Gotzon Arzelusek. Aplikazioko edukiak Elhuyarren Bidaide plataforman kargatzen dira eta "Baturaren ardura izan da, eduki horiek Bidaide hartu, IOS eta Androidentzat programatu eta

"BISITA GIDATUAK NORK BERE KABUZ EGIN AHALKO DITU APLIKAZIOAREN LAGUNTZAREKIN"

irisgarri bihurtzea, deskargatu ahal izateko". Gogorazi zenez, "erakunde publikoak duela hiruzpalau urtetik behartuak daude aplikazioak herritarrentzat garatzen dituztenean irisgarriak izatea eta Usurbilgo Udalak hori bermatu du".

Bisita gidatu gehiago

Aplikazio hau lagungarri suertatuko zaigu hurrengo hilabeteotan. Izan ere, bisita gidatu askotarikoak izango ditugu; zaintza ekosistema eredu berriari, hondakinen kudeaketari edota Elizari lotutakoak... "Usurbil Museo Irekia" ekimenari segida emango diete baita. Tarteka, gainera, osagai berriak txertatuko dizkiote hitzorduari, beste eragile batzuekin lankidetzan. Horrez gain, "euskarrietan ere berrikuntzak egin ditugu. Alde batetik, QR kodetun euskarriak sortu ditugu, aplikazioari lotuta daudenak eta hauek Museo Irekia izeneko ibilbideko puntu esanguratsuetan daude kokatuak. Mugikorrekin QR horiek eskaneatuta, puntu horien informazioa jasoko dugu". Horrez gain, Mikel Laboa plazako totem edo zutabea ere "berrikuntza dugu eta aplikazioan jaisteko aukera emango da QR bidez".

Bisita gidatuak

Martxoak 23, larunbata

• 11:00-13:30 "Usurbil Museo Irekia" eta Chillida Lekura bisita gidatua.

Martxoak 31, igandea

• 11:00 "Usurbil Museo Irekia" eta Zumeta Arte Estudiora bisita gidatua.

Apirilean

• Zumetaren muralaren 50. urtemugako erakusketa.

Apirilak 14, 20, 28

• 12:00-13:00 "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatuak.

Izen-ematea:

650usurbilbizi.eus



Gai librean idatziko dira ipuinak. Irabazleak 150 euroko balioa duen saskia jasoko du Hurbilagoren eskutik.

Etumeta Literatura Lehiaketa, azken txanpan

Apirilaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira sorkuntza lanak. Sari banaketa aldiz, ekainaren 5ean egingo da.

Usurbilen erroldatua egon edota Etumeta AEK euskaltegian matrikulatuak dauden 18 urtetik gorakoei zuzendua dago lehiaketa (adin hau izatea, lanak bidaltzeko unean).

Ezaugarriak:

- Ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez.
- Times New Roman letran idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin.
- Gai librean idatziko dira.
- Lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere.
- Euskaraz idatziak behar dute.

Dokumentuak:

Bi dokumentu bidaliko dira inaki-d@ae.k.eus helbidera:
1. dokumentua: Ipuina bera, marka identifikagarririk gabe, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburua

bera izango da: "IZENBURUA.PDF".

2. dokumentua: parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaiotze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburuarekin berarekin identifikatuko da: "IZENBURUA.DATUAK.PDF".

Epeak:

- Otsailak 12-apirilak 7: lanak bidaltzeko epea.
- Ekainak 5: sari banaketa. Bertan "egingo da irabazleak publiko, irabazleari emailez jakinaraziko zaio aurretiaz". Irabazle bakarra egongo da, "eta gehienez ere bi aipamen; bakoitzari diru saria eta oroigarria emango zaizkio. Epaimahaia sariren bat eman gabe utzi dezake, merezitako lanek ez dagoela erabakiko balu".

Parte hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira sari banaketara, eta oroigarri bana emango zaie.

Sariak:

- Txapelduna: 150 euroko saskia, Hurbilagoren eskutik.
- Aipamena: 70 euroko saskia, Hurbilagoren eskutik.

Epaimahaia:

- Etumeta AEK euskaltegiak hautaturiko hiru kideek osatuko dute. "Haien erabakia aldaezina izango da", ohartarazi dute antolatzaileek.
- Etumeta AEK arduratuko da epaimahaikideei lanak bidaltzeaz, identifika ez ditzaten, baita, epaia ebatzi ondoren, hura bere egilearen datuekin lotzeaz ere.

Oharrak:

- Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarririk onartuko.
- Parte hartzaileek onartzen dute euren lanak argitaratu ahal izatea NOAUA! aldizkarian eta Etumeta AEKren sare sozialetan.
- Baldintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak berak, lehen hau barne.
- Informazio gehiago: blogak.eus/etumeta-euskaltegia-ae

Igande honetan, "Olagarrua" antzezlanaren Sutegin

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoaren baitan ondutako sormen lan hau ezagutzeko aukera izango dute, martxoaren 24an, arratsaldeko 18:30etan Sutegiko auditoriora joandakoek. Maitane Perez, Nerea Arriola, Olatz Beobide aktoreak protagonista dituen antzezlan honetarako sarrerak 5 eurotan eskura daitezke aurrez usurbilkultura.eus plataforman. "Errudunak gara? Errugabeak? Zerk egiten gaitu errudun? edo nork? Gure errua, gure errua da? Ba al daude erru txiki eta handiak? Erru kuttunak askatu nahi ditugu? Erru potoloak kiloka neurtu daitezke? Oholtza bat. Olagarrru bat. Hiru emakume".

Pantxoari eta Peiori eskainitako kantu-jira

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolaturiko hitzordua, ohi baino lehenago iragarri dute martxoan, igande honetan bertan, hilaren 24an. Eguerdiko 12:00etan Mikel Laboa plazaatik abiatuko den saioa berezia izango da ez soilik data aldaketagatik, ekitaldi monografikoa izango delako. Pantxo eta Peiori eskainitako bira izango da eta haien abestiak soilik kantatuko dituzte. Hitzorduari begira, kantu bilduma honekin koadernotxo osatu dute. Udal liburutegian haren kopiak eskura ditzakezue. Kantu-jira egunean ere banatuko dituzte.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil



GurasOSek Nafarroako parlamentuko alderdien esker ona jaso zuen, aurreko astean eskaini zituen argibideengatik.

GuraSOS, Nafarroako parlamentuan

Zubietako erraustegitik Nafarroako Artaxoako konpostatze plantara garraiatuak lixibiatuen auziaz hitz egitera deitu zuten GuraSOS iragan ostiraletan Nafarroako parlamentura, gai honi buruz bertako teknikarien espedienteak amaitzeko finkaturiko epealdiaren azken egunean.

Zubietako erraustegitik Artaxoako konpostatze plantara garraiatuak lixibiatuen auziak pil-pilean darrai. Asteazken honetan, Gipuzkoako Batzar Nagusietako osoko bilkuran gai honi buruz interpelatuko du EHBilduk GHK-ko lehendakari eta jasangarritasun arloko foru diputatu Jose Ignacio Asensio. Aldez aurretik, iragan ostiraletan GuraSOS gonbidatu zuten Nafarroako parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordera gai honi buruz mintzatzea. Eskuartearen dute dokumentazioa helarazi diote erakunde honi. "Erraustegi bateko lixibiatuak konpostatze planta batera eramatea oso larria da", salatu zuen elkarte horretako ordezkari Joseba Belaustegik.

Lixibiatuen auzia, Arkaitzerrekan 2022ko uztailaren izandako eta oraindik konpondu ez den iragazketari lotu zuen Belaustegik. Gertatu eta biharamunean salatu zuen GuraSOSek. "GHK-k lau hilabetez ukatu zuen", oroitarazi zuen Nafarroako parlamentuan. Gerora, elkarte honetan esanetan, Artaxoara eta Bilbora bidaltzen hasi ziren hondakinok. "Jaurlaritzari dagokio lixibiatuen karakterizazioa egiaztatzea, baina inoiz ez da egin halakorik", GuraSOSen esanetan. Horregatik, Belaustegik zioen, "arazo teknikoaz gain, kudeaketa zaileko arazo politikoa dago". Izan ere, Nafarroako gobernuak "alderdi bereko ondoko erkidegoko administrazioa kontrolatu behar du".

"Baimenik gabe"

Alderdi denek eskertu zuten GuraSOSek emandako informazio eta argibideak. Hortik aurrera, gaiari buruz nork bere ikuspegia azaldu zuen. PSN-k zuhurtziaz jokatzeko galdegin zuten, nahiz bozeramaile Carlos Menak gaineratu zuenez, "beste leku batzuetatik" ere jasotzen ari zirela hondakinak Artaxoako konpostatze plantan "baimenik gabe". Nafarroako gobernuaren auzi honi buruzko behin betiko txostena jaso zain geratu zen. "Gero,

"TEKNIKOAZ GAIN, KUDEAKETA ZAILEKO ARAZO POLITIKOA DAGO"

JOSEBA BELAUSTEGI (GURASOS)

behin betiko erabakiak hartu beharko dira", iragarri zuen.

Geroa Baik Nafarroako gobernuak "diligentziaz eta arduraz" jokatu zuela defendatu zuen kontrol eta jarraipen lanetan eta iaz indartu egin zutela auzi honen berri izan ostean. Ukatu egin zuen Nafarroako gobernuak eta Eusko Jaurlaritza elkar hartuta daudenik, "gertaturikoaz ikuspegi ezberdinak daude".

EHBilduk GuraSOSek eginitako ekarpena eskertu zuen; "zuei esker Nafarroan jakin genuen zer nolako lixibiatuak ekartzen ziren". Egoera horren aurrean, "gobernuak jarrera lasaia agertu du", bozeramaile Adolfo Araizen esanetan. Izan ere, 2023 hasieratik salaketa anonimoak hasiak ziren; tartean, nekazari batena, "konposta plastikoekin banatzen ari zirela" zioena.

"Utzikeria erabatekoa"

UPNtik "Nafarroako gobernuaren utzikeria erabatekoa izan da" salatu zuten, garrantzitsu falta egoztearekin batera. "Baimendutakoa baino hamar aldiz toxikoa-goak ziren" hondakinak jaso zituzten Artaxoako plantan eta "ez zen ezer egin". Zurekin Nafarroak "pilatutako hainbat akats administratiboren aurrean gaude", adierazi zuen. Gertatutakoak hondakinaren kudeaketari lotutako "ikuskaritza eta kontrola indartu beharra agerian uzten du". Gai honek talde honentzat "lehentasunezko kezka izan behar du gobernuarentzat". PP-arentzat Nafarroako gobernuak "ez du gutxienezko diligentzia, seriosotasun eta zorrotzasunarekin jokatu", ingurumenarentzat eta herritarren osasunarentzat "hain gai arriskutsua" izanda. VOXen esanetan, "gaizki eta berandu" erantzun da. "Ikuskaritzek huts egin dute, analitikak ez dira egin". Halere, "batez ere arazo politikoa da, garrantzitsu eza erabatekoa da".



Erromintxelak taldea Mikel Laboa plazan aritu zen. NOAUA



Zubietako frontoia txiki geratu zen aurreko larunbatean. NOAUA

Swing doinuak ilunabarrean

Erromintxelak taldeak ostiralean, udaberriko ilunabar zoragarri horietako batean Mikel Laboa plazan swing doinuak plaza-ratu zituen ehunka herritarren aurrean. Eguraldi ona, Zume-taren muralean argia sartzen ikusi eta doinu ederrak entzuteko aukera izan zuten hurbildu ziren herritarrek.

Ene Kantak-en saio arrakastatsua

'Ene Kantak' gaztetxoentzako ikuskizunak izugarritzko arrakasta izan zuen Zubietako frontoian. Soinurbilek umeentzat antolatutako ekitaldira ehundaka ume hurbildu ziren eta harmailak goraino bete zituzten. Abestia eta dantza ez ziren falta izan eguerdi arte.



Herritar ugari bertaratu ziren Salbatore elizara. NOAUA



Argazkian ikusten denez, ikusle ugari batu ziren frontoian.

Landarbaso Abesbatza elizan

Landarbaso Abesbatzaren emanaldiak Salbatore Eliza bete zuen larunbatean. Ehunka herritar elkartu ziren denetariko obra klasikoak (baita modernoak ere) entzuteko. Saio bikaina eta erritmo aldaketa handikoaz gozatzeko parada ederra izan zuten hurbildu zirenek.

Andoingo Musika Bandaren emanaldia

XX. Soinurbil musika astea igandean amaitu zen Andoingo Musika Bandaren kontzertuarekin. Dena den, ostegun honetan eta Azpeitiko Musika Eskolak gonbidatuta, Zumarte Musika Eskolako ikasleak Azpeitiko San Agustin Kulturgunean arituko dira zuzenean.



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321

publizitatea@noaua.eus

ALdea dago!!

Gaixoa gure Maripurtzil! Gaixoa, gainera, zentzu guztietan. Sukarra nahikoa ez, eta amak "mehatxu" egin dio, bere mesedean ari delakoan. Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Sudokua



Izan ere, zer ematen zaio gaixo dagoenari? Botika, hain zuzen ere, eta gehienetan nazkagarria izaten da. Bete itzazu sudoku honen hutsuneak BOTIKA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (B, O, T, I, K eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Itzala



Pelloziriren laguna harrokeriatan aritu da: sua piztu du! San Juan bezpera dela uste al du?! Suaren gainean jauzi egin duen batean, puzkertxo batek ihes egin dio, eta brokoli asko jan ostean izan denez, gaseoso samarra atera zaio gizajoari, eta, jakina, su hartu dio... Zein da bere itzal zuzena?



Soluzioak 20. orrialdean.

Mila “apellidu” abizenduta, Buruntzaldeko udalen ekimenez

Zure “apellidua” abizendu nahi? Erraza eta azkarra da prozedura, irakurle, Buruntzaldeko udalen eta tokian tokiko bake epaitegien elkarlana medio. Orain 24 urte sortu zen “Apelliduak abizendu” egitasmoa.

ERREDAKZIOA BURUNTZALDEA

Zaharkituta gelditu dira, honetzero, Gorrochategui edo Echeverria bezalako abizenak; jada, ez dira horrenbeste aguirretar, churrucatar edota aramburutar gelditzen eskualdean. Aitzitik, geroz eta gehiagok idazten dituzte beren abizenak “b”, “z” edo “tx” hizkiz. Mende berria ekitearekin batera ipini zuten martxan “Apelliduak abizendu” egitasmoa Buruntzaldeko udalek, tokian tokiko bake epaitegiekin elkarlanean. Hala, ia mende laurdeneko ibilbidean, mila bizilagun inguruk euskaldundu dute deitura, Andoainen, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen.



Geroz eta jende gehiagok euskalduntzen du bere abizena Buruntzaldean. AIURRI

Nola egin?

Maiz, administrazio-erriak korapilatsuak izan arren, azkarra eta erraza da “apellidutik” abizenera jauzi egiteko prozedura. Herriko bake epaitegira jo eta momentuan ber-

tan egiten dute aldaketa, zenbait dokumentu aurkeztuta: lehenik, nortasun-agiria; bigarrenik, udaletxean bertan eskatu beharreko errolda-agiria; eta, azkenik, jaioterriko bake epaitegian eskatu beha-

rrereko jaiotza-agiri ofiziala. Modu berean, Familia Liburua erakutsi beharko dute ezkonduak edo haurrak dituztenek. Azken horiei ere, adin txikikoak izanez gero, zuzenean egingo zaie aldaketa, gurasoen deitura berbera izan dezaten. Helduen kasuan, nork bere aldaketa egin beharko du.

Euskaltzaindiaren esanetara

Edonork al dauka abizena euskaratzeko aukera, baina? Ez, Euskaltzaindiak onartutako irizpideak jarraituz aldatzen dira deiturak. Euskaltzaindiaren webgunean bertan egin dezakete kontsulta interesdunek, “Hizkuntza baliabideak” arloko “Onomastika” atalean.

Abizena euskaratu ondoren, gainerako dokumentuetan ere euskaratutako deitura jarri behar izaten da, bake epaileak emandako ziurtagiri baten laguntzaz. Doakoa da aipatutako prozesu guztia. Beraz, erdal bustidurak atzean utzi eta mihia euskaraz zorrozteko aukera duzu eskuartean, “iracurle”.

"AZKARRA ETA ERRAZA DA JAUZI EGITEKO PROZEDURA"

- Aguirre
- Amelzaga
- Aramburu
- Arcechea
- Arregui
- Ayestarote
- Bengochea
- Behraberru
- Churrucar
- Echaberi
- Echeverria
- Egiguren
- Escudero
- Gaiochea
- Gorrochategui
- Gurruchaga
- Ilarragui
- Iparhagurre
- Izaguirre
- Lascuain
- Lerchundi
- Mendibil
- Michelena
- Ochoa
- Ollaguiqui
- Sagastibabal
- Urbetabizkaita
- Vain

Apelliduak abizendu

Aurkeztu beharreko agiria:

Errolda agiria
Zure udaletxeko bulegoetan egingo dizute.

Jaiotzagiri literala
Zure udalerriko Bake Epaitegian egingo dizute.

NANaren fotokopia

Famili liburua
Ezkonduta egon edo seme-alabarik izanez gero.

Egin beharrekoa:
Aipatutako agiria bildu eta herriko Bake Epaitegira joan. Bertan egingo dizute aldaketa. Zalantzaren bat izan edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu herriko Bake Epaitegira:

Andoain: 943 300 820
Astigarraga: 943 335 236
Hernani: 943 552 836
Lasarte-Oria: 943 371 629
Urnietan: 943 008 345
Usurbil: 943 372 336



- Agirre
- Amelzaga
- Aramburu
- Arcechea
- Arregui
- Ayestarote
- Bengochea
- Bordaberru
- Truhuka
- Etxaberi
- Etxeberria
- Egiguren
- Eskudero
- Gaiochea
- Gorrochategui
- Gurruchaga
- Ilarragui
- Iparhagurre
- Izaguirre
- Lascuain
- Lerchundi
- Mendibil
- Michelena
- Ochoa
- Ollaguiqui
- Sagastibabal
- Urbetabizkaita
- Vain



Buruntzaldea
euskaraz

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria,
Urnietan eta Usurbilgo Udaleko Euskara Batzordeak

euskara.buruntzaldea.eus

Diseñatzailea: Katalina



KORRIKA, IRUDITAN



Zubietako Eskola Txikikoek Hipodromoko zubian hartu zuten lekukoa.



Usurbilgo Lanbide Eskolaren izenean kuadrilla ederra batu zen.



Ikaslan Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkartekoak, lekukoaren zain.




Enpresa Bidean-eko kideei Artzabaleta ondoan egokitu zitzaien.



Fagor Automation Berriolakoek argazki argitsuago bat merezi zuten.



Orbeldikoen argazkia oso txarra zenez, Zumartekoarekin konformatu behar.



Aitzagako kide ezberdinek eraman zuten lekukoa.



Aztarrrikako gazteek Kalezarreraino gidatu zuten Korrikaren karabana.



Korrika herrira iritsi aurretik, Aztarrikako gazteek familia argazkia atera zuten.



Euskarari koplaka bikain aritu ziren Udarregi ikastolako bertso eskolakoak.



Oxtapeko sarreran, Aztarrikakoek hartu zuten lekukoa.



Jendetza zeterren Zubietatik eta Usurbilen are handiagoa egin zen "tropela".



Gauerdia izateko gutxi falta zen arren, gazte zein heldu ugari atera zen kalera.



Kale Nagusian, udal ordezkari politikoek txanda iritsi zen.



Galardiko gasolindegian Aginagako kuadrilla honek hartu zuen lekukoa.



Aginagako beste kuadrilla handi bat, bide bazterrean zain.

Korrika Txikiak ere jendetza batu zuen



Udarregi ikastolako ziklo guztiek parte hartu zuten Korrika Txikian. NOAUA



Euskarari kantuan amaitu zuten Udarregikoek Korrika Eguna. NOAUA

23. Korrika gauez iritsi aurretik, bazkalostean hasi ziren beroketa ariketak ikastetxeetako Korrika Txikiekin; iruditant, Udarregi ikastolak ospa-

turikoa, bizi asko eta koloretsu. Nola ez, eskuz esku ibili zuten lekukoa DBHtik hasi eta HH-raino. Korrika Txikia geure hizkuntzaren aldeko aldarrien

uholdean bilakatu zuten, denak batera frontoira iritsita-koan. Euskaltzaletasunarekiko harrotasuna adierazi eta euskarari gorazarre egiteko

baliatu zuten lekuko barruan zeramaten mezua bistaratu eta plazaratzeko harturiko tartea. Kantuan eta dantzan amaitu zuten saioa.



Zubietako eskolakoek giro ederrean osatu zuten Korrika Txikia. NOAUA



Zirimarakoek ere korrika amaitu zuten familia plana. NOAUA

"Zubietan ere, euskararen alde!"

Korrika Txikia arratsalde partean ospatu zen Zubietan. Euskararen aldeko lasterketa eskolaren atarian hasi eta eskolan bertan amaitu zen, Zubietan barrena zirkuitu bat osatu eta gero. Korrika Txikiaren amaieran, lekuko barruan zihoan idatzia irakurri zuten ikasleek.

Zirimarakoak ere, korrika

Lasterka bizian joan zen Korrika Eguna. Gaueko 23. Korrika noiz helduko zain, ikastetxeen bazkalosteko Korrika Txikien ondotik, *tipi-tapa, tipi-tapa, korrika* amaitu zuten baita Zirimararen jolasetan parte hartzen ari ziren familiek. Etumeta AEK euskaltegikoek prestatutako txokolate jan ederrarekin borobildu zuten arratsaldea.

23. KORRIKAKO ARTIKULUAK, ARGAZKIAK ETA BIDEO-IRUDIAK SAREAN ERE IKUSGAI!



ARTIKULUAK

noaua.eus/bereziak/23-korrika



ARGAZKIAK

noaua.eus/galeriak/



BIDEOAK

youtube.com/noauatb





Apirilaren 13ko ibilaldia gidatua eta antzeztua izango da. Argazkian, Usurbil 1936 elkarteak kideak.

Andatzako defentsa-lerrora bisita

Urriaren 21erako iragarri bai baina eguraldiak bertan behera uztera behartu zuten ibilaldi gidatu eta antzeztua apirilaren 13rako iragarri du Usurbil 1936 elkarteak. Berreskuraturiko lubakiak hurbiletik ikusi edota garaiko testuinguruaz zer ikasia izango da.

Herri honetako oroimen historikoa berreskuratzeko due-la lau urte aurkeztu zen Usurbil 1936 elkartearen lan-ildoe-tako bat izan da hasieratik, aipatu urte hartako gerrak udalerrri honetan utzitako arrastoa agerian uztea; besteak beste, lubakiak berreskuratzea. Zeregin horretan jardun dira elkarteko kideak eta herriko hainbat bolondres, arkeologo talde batekin, aurreko bi uda garaietako hilabeteetan Andatza gainean. Egindako lana erakusteko ordua heldu zaie. Berriki Youtubeko "Usurbil 1936" kanalean egin bezala, lanok bertatik bertara ezagutzeko txango berezia iragarri dute apirilaren 13rako; ibilaldi gidatu eta antzeztua.

Helburu hirukoitza du ekimenak. "Andatza mendian 1936ko gerraren inguruan

abuztu bukaeratik iraila erdialdera arte jazotako borrokez informatzea, testuinguru historikoa azaltzea eta 2022-2023an egindako lan arkeologikoaren ostean berreskuratutako lubakiak erakustea da". Usurbil 1936 elkartetik aurreratu dutenez, hainbat herrikideren parte hartzearekin egingo da antzeztua, artxibategietan aurkitutako dokumentazioko datuen laguntzaz. Indusketetan parte hartu zuten arkeologoak ere ekitaldi honetan izango dira, aurreko bi udetan eginiko lanketa azalduko diete bisitariei.

Izan ere, bost lubaki aurkitu zituztela berri eman dute Usurbil 1936 elkartetik. Haietatik bat ezin izan zuten hondeatu, beste batean ordea "sorpresa handiak aurkitu genituen. Material asko". Ikusgarrienak

diren hiru lubaki bisitatu ahal-ko dira hilaren 13an. Ondarea, jendea eta animaliak babes-terto itxitura bat jarri dute.

Ibilaldiaz

Bisitariek hiru ohar kontuan izatea nahi dute antolatzaileek: puntualak izatea; lubakiak zuhazti batean egon arren egun, garai hartan halakorik ez zegoela aintzat hartzea; eta kolpistak aipatuko dituzten arren, urteotan isildutako bando errepublikarren ikuspegi-tik eskainiko direla azalpenak. Bistaratuko dutena, urteotan

"SORPRESA HANDIAK AURKITU GENITUEN. MATERIAL ASKO"

batutako dokumentazioan oinarrituta, Andatzako fronteak hasiberria zen gerran Donostia babesten izandako garrantzia izango da, Gipuzkoan 50 kilometro luzeagoa zen defentsa lerro luzeoko puntu garrantzitsua.

Ibilaldia Puelatik hasiko dute, eta adi, bertatik lubakietara heldu arte hainbat panel aurkituko dituzue; Puelan, gurtzean edota borda parean. Izan ere, ibilbide hau seinaleztatu du Usurbil 1936 elkarteak. QR sistemarekin hornituak daude gainera. Beraz, horren bidez "informazioan sakontzeko gure usurbil1936.eus webgunera bideratuko zaio". Horrez gain, 650 Usurbil Bizi herri proiektuarekin bat egingo du ibilbide honek. Aurrerantzean, 650usurbilbizi.eus atarian eta aplikazioan aipatu ibilbideari (Wikiloc formatuan) eta lubakiei buruzko informazioa eskainiko da. Usurbil 1936 elkarteak bestalde, lubakiotan aurkitutako ondarea garbitze eta katalogatze prozesuan dute arkeologoek. Gero, "Diputazioaren gordailura eraman behar da". Halere, iragarri dutenez, ondare horren "zati esanguratsuenak herrira ekarri eta betirako ikusgai" jartzeko asmoa dute.

Lubakietara txangoa

Apirilak 13, larunbata

9:00 Mikel Laboa plazan bil-tzeko hitzordua.

10:00-13:30 Ibilbide gidatu eta antzeztua Puelatik Andatza gainera. Parte hartzaileak: Intxorta 1937, Lubaki, Burdin Hezia Oroimenaren Museoa, Euzkadiko Frontea, Oroimen taldea, Usurbil 1936 elkarte eta herriko bolondresak.

Gehienezko parte hartzaile kopurua: 80. 12 urtetik gorakoak. Animaliak ezin dira eraman.

Izen-ematea: aurrez, usurbil-kultura.eus plataforman edo Potxoenean.

Antolatzailea: Usurbil 1936.



Argenis Salcedo venezuelarra, HarEman egitasmoa parte hartzaileetako bat.

Hartuemanetan hazten eta hezten

Usurbilen bizi direnen eta gure artera bizitzera etorritakoen arteko elkar ezagutza eta harreman sarea garatzen eta hazten doa, urte hasieratik abian den HarEman gizarte mentoretzako egitasmoari esker. Lerrotoako lekukotzak horren ispilu ditugu.

"Herrian norbaitek agurtzen nau, inolako erreferentzia ezagunik ez dudanean". Gure artera bizitzera datozen artean, berebiziko garrantzia duen keinu txiki-handia. Horretan eragin nahi du, herrikide sentiarazten lagundu, Usurbilgo Udalak sustatu eta Zabalduz kooperatiba dinamizatzen ari den HarEman egitasmoak. Usurbil herri harregarile bilakatzeko bidean, bertan jaio eta bizitakoak eta hona heldutakoak hartuemanetan jarri, elkar ezagutu eta aberastea helburu du proiektu horrek, kulturartekotasuna sustatzea.

Ingurua aurkezteko gogoz Udazken amaieran hasi ziren, gizarte mentoretza programa honetarako boluntario bila. Negu hasieran bideraturiko

izen-emate kanpainatik hainbat bikote sortu eta harreman-tzen hasiak dira azken aldian, denek elkarrekin Potxoenean eginiko formazio saioaren ondotik. Parte hartzaileen artean da Onintze Kamino Landa. Zabalduz-eko langile zein bazkidea eta herrikidea, une honetan bizitzen ari den amatasun eszedentzia tarte hau, HarEman-en bere ekarpena egiteko baliatzen ari da. "Denbora nuen eta ilusioa". Argi

**ONINTZE KAMINO:
"ERAKUNDEEN
LAGUNTZA EZ DA
ASKI. GEROZ ETA
JENDE GEHIAGO
DAGO BAKARRIK"**

du; "ni ere beste leku batera bizitzera joango banintz, halako bidelagun bat izatea nahiko nuke".

Bikoteak osatzeko garaian, Zabalduz aritu da zubi-lana egiten; profilak, zaletasunak... parekatzen. Oso eroso sentitzen da ezagutzen ari den herrikide berriarekin. "Adin paretsukoak gara, biok ama gazteak, denboraldi batez lan mundutik at gaude haurrak zaintzen". Elkar ezagutzen eta

**"KONPLIZE BAT
GEHIAGO DUZU
HERRIAN.
EKARPENEA EZ DA
EGINDAKOA SOILIK,
JASOTAKOA BAITA"**

konfiantza eraikitzen doaz, modu naturalean. "Neure ingurua aurkezteko joateko gogoaz dut", adierazi digu Onintzek.

Komunitatea saretzen

Halako egitasmoen beharra sumatzen du. "Erakundeen laguntza ez da aski. Geroz eta jende gehiago dago bakarrik", ohartarazi du. Geroz eta individualistagoa den gizarte honetan, nabarmentzen duenez, "denok egin dezakegu zerbait komunitatea sartzeko. Gure herrira iritsi direnei bidea erraztea behintzat". Zer garrantzitsua den, bere esanetan, "kalean irribarre konplize bat izatea". Horixe behar baitu berez bizi proiektua bat eze-rezetik hasten ari denak; "gizarte honen parte sentitzea; ez errolatua soilik, herriko bizitzaren egunerokotasunean baizik", Onintzeren esanetan. Eta trukean, irribarre egin duenak ere zenbat jaso deza-keennabarmendudio NOAUA!-ri. "Zuk ere konplize bat gehiago duzu herrian. Izan ere, ekarpena ez da nik egiten dudana soilik, berarengandik jasotakoa ere bai"; esaterako, bidelagun duenaren bizi-esperientziak. Pixkanaka, bidea egiten doaz, konfiantza hartzen. "Horrek bide ematen dizu, aurrera begira plan ezberdinak egiteko" eta azkenean, hartuemanari egitasmo honen baitan hartutako konpromisotik haratago segida emateko.

"Ea zer gertatzen den"

HarEman proiektuan parte hartzen ari da Argenis Salcedo. Venezuelan jaio eta hazitakoa, Txilera bakarrik bizitzera joan beharrean aurkitu zen. Usurbila bizitzera etortzea, beraz, ez da izan estreinakoz egin behar izan duen leku eta bizimodu aldaketa bakarra. Gustura bizi izan zen zazpi urtez Txilen, "ez nuen etorri nahi handik" eta horregatik, adierazi digunez, "hemen istorioa errepikatzea espero dut". 2022. urte amaieran etorri zen

semearekin. Dagoeneko hemen bizi zen gaztetxoaren amaren gonbitari baiezkoa ematea erabaki zuen. "Hasieran ez nintzen kokatzen. Hemen zer egiten nuen galdetzen nion neure buruari; bestalde, semea hemen nuen. Bera izan zen hemen geratzeko arrazoi nagusia", Txilera itzultzean egon baitzen. "Ea zer gertatzen den". adierazi dio NOAUA!ri. Noiz arte ez daki, baina momentuz hemen biziko dela argi du.

"Bakardadea, oso handia"

Usurbila heldu zenetik txikitatik hemen bizi duen lehen-gusuaren bueltako sarea du. Semeak eskubaloian jokatzeko du eta horren bidez integratzen ari dela dio. Halere, "ez dut jende asko ezagutzen. Horrek nire alde edo aurka joka dezake. Alde, neure barrura begiratzeko astia ematen didalako. Baina batzuetan bakar-dadean igarotako denborak gehiegi pentsatzera eramaten nau". Txilera iritsi berritan bizitako bakardade gogor hura datorkio burura. Zorionez, "herramintak baditut emozionalki zer bidetan noan jakiteko. Horiek gabe edonor erraz hondara daiteke, bakar-dadea oso handia baita".

Herrikideekin harremandu, herrian murgiltzeko

Testuinguru horretan, parte hartzen ari da HarEman egitasmoan eta herrikide batekin hartuemanetan dabil. Izen-ematea bezalako "lehenengo pausoak dira gehien kostatzen direnak, baina behin barruan zaudela bidea egiten duzu, ez zara jabetzen noraino hel zaitezkeen". Besterik gabe, hitz egitea bada helburua, argi dio, edonorekin komunikatu daiteke, bainaxedea, "bizi naizen tokia ezagutzea da. Nire asmoa hemen geratzeko bada, bizimodua hemen egin behar badut, herri honen funtzionamendua ezagutu behar dut; herria zerk aberastu eta pobretzen duen, zerk egiten duen herria handi edo txiki...



Frontoia herrikideen topaleku bilakatzen duen urteroko Mundualdia.

Bestela, ez du zentzurik hemen isolatua bizitzeak". Horregatik, harreman sarea handitu nahi du horretarako. Izan ere, "persona batekin harremantzean, herrira lotzen zoaz" eta guztiok dugun oinarrizko beharra asetzen laguntzen du baita HarEman-ek; hitzak dioen moduan, harremantzea; jaso eta eman, eman eta bueltan jasotzea, bi norabideetan, aldi berean.

"Orain, integratuagoa"

Argi du, bide hori ez da erraza. Duela hamabost bat urte izan zen bisitan lehen aldiz Usurbilen. Orduko herri hura egungoa baino "hermetikoa-agoa" zela oroitzen du. "Orain integratuagoa" ikusten du. Hori bere herri ikuspegia, baina nabarmendu nahi izan digu baita, badagoela zer aldatua herrira datozenekiko ere. "Ez gara integratu nahian

"HASIERAN EZ NINTZEN KOKATZEN. HEMEN ZER EGITEN NUEN GALDETZEN NION NEURE BURUARI"

gabiltzan heldu berri gaixoak. Kanpotik datorrena ez da mehatxu bat, gaitasun, energia, aukera berriak baizik. Kulturen arteko trukea egon daiteke, denontzat onuragarria dena. Mila zarete hemen, ni bakarra. Nikegin dezakedan ekarpenak emaitza onak izan ditzake", gogorarazi dio NOAUA!ri.

Pertsona bat herri ezezagun eta berri batera heltzen denean egin beharrekoak dituen oztopoz betetako tramiteen gaitetik, trebetasuna, etorri berriarekiko kontua handiago izatea falta da bere esanetan. Horma horiek haustek dakartzan onurak nabarmendu ditu. "Norberak enpatia gehiago du besteekiko, kontu handiagoa du pertsonekin eta gainera, ezagutza handiagoa". Herri harreragile izateko bide horretan, zer urrats gehiago eman ditzakegun

"KANPOTIK DATORRENA EZ DA MEHATXU BAT; GAITASUN, ENERGIA, AUKERA BERRIAK BAIZIK"

galdetuta, argi dio; "HarEman bezalako egitasmoaren inguruko propaganda gehiago" egitea egokitatzeko jotzen du, Mundualdia bezalako egun bakarreko ekimenen islada nabariagoa izatea urtean zehar. Duela hamabost urte-tik hona herri honetan bilakaera sumatu du eta aurreantzean ere bide horretatik segiko duela uste du. "Egun ez da duela hamabost urte bezain herri itxia, eta horrek denborarekin aldatzen segiko du. Jende gehiago, kultura gehiago sartzen ari dira herrian". Usurbila datorrenarentzat, hemen bizi baldintza egokiak daudela ikusten du, besteak beste, "herri txikia izateagatik, non herrikide gehienak elkar ezagutzen diren. Ia egunero ikusiko duzu ezagutzen duzun jendea. Agurtzen nau gizon galizar heldu batek. Gaztetan etorri zen Usurbila bizitzera, eta argi dio ez dela hemendik joango".

Segida

Lehenengo bikote harremanak bideratzen hasiak dira bistan denez, baina ez da hemen amaitzen Zabalduz kooperatibak HarEman egitasmoari dagokionean duen zeregina. Harremantzen ari diren herrikideen jarraipen lana egiteaz gain, harremanotarako kide berrien bilaketan segi nahi dute, izan ere "herri honetan, konplizitate eta erreferentzia faltan, bakardade egoerak" asko baitira, Loira Manzaniren esanetan. Egitasmoa herrian txertatzen segi nahi dute. "Kulturartekotasunaren gaia ez da erraza, baina jendea pausoak ematen ari da. Proiektu hau geratzeko etorri izana espero dugu". Ekainean egingo dute lehenengo ikasturte honen itxiera. "Baratza batean barbako bat" egitea bururatu zaie parte hartzaileei. Hurrengo ikasturterako prest utzi nahi dute guztia, izan ere "Udalak hartuko du gidaritza".

Aho-hortzetako osasuna hobetzeko ekimena

Hortz kliniketako higienistak izateko ikasten ari dira eta gradu amaierako proiektuaren bitartez, usurbildarren aho-hortzetako osasuna hobetzen lagundu nahi dute. Apirilaren amaieran hainbat hitzaldi eskainiko dituzte.

Laurek aho-hortzetako higienista gisa lan egin nahi dute. Easo Politeknikoan hiru urte egin dituzte ikasten, eta gradu amaierako proiektua lantzen hasi dira.

Lau hitzaldi

Lan honen bidez, ikasketak amaitu nahi dituzte eta bide batez, herritarrentzat balio-

garri izango den egitasmo bat burutu nahi dute: Usurbilgo aho-hortzetako osasuna zein den aztertu nahi dute eta ber-rua hobetzeko gakoak eskaini.

Horretarako, hainbat hitzaldi eskainiko dituzte. Datak ez daude zehaztuta oraindik, baina apirilaren amaieratik aurrera izango direla azaldu digute.



Uxue Iturrioz, Moraisis Silva, Salma Essobai eta Lida Castellanos.

Datak aurrerago zehaztuko dituzte

Hitzaldietako bat Udarregi ikastolan eskainiko dute. Gaztetxoei hainbat gomendio luzatuko dizkiete.

Bigarren hitzaldia Emakumeon Etxean egingo dute. Hirugarrena orokorragoa izango da, jende helduari zuzendua, eta alkoholak edota tabakoak

aho-hortzetako osasunean duten eraginaz jardungo dute.

Azken hitzaldia Egurtzegein egingo dute, Matia fundazioak Kalezarren kudeatzen duen adinekoen egoitzan.

Herritarrei eskainitako so-lasal-di hauez gain, herrian lanean ari diren dentistekin ere batzeko asmoa dutela azaldu digute.

ALdea dago!!

Gaixoa gure Maripurtzill Gaixoa, gainera, zentzu guztietan. Sukarra nahikoa ez, eta amak "mehatxu" egin dio, bere mesedean ari delakoan. Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.

ESTARRIKO ALDE-EMATEKOKO ONENA, XARABEA.

ZINTZURREKO MINA GOXATZEKO ONENA, XARABEA.

Sudokua

K	I	T	B	A	O
B	A	O	T	I	K
I	O	K	A	B	T
A	T	B	K	O	I
O	K	A	I	T	B
T	B	I	O	K	A

Izan ere, zer ematen zaio gaixo dagoenari? Botika, hain zuzen ere, eta gahienetan nazkagarria izaten da. Bete itzazu sudokua honen hutsuneak BOTIKA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (B, O, T, I, K eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela leerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Itzala

Pellozirenen laguna harrokeriatan aritu da: sua piztu du! San Juan bezpera dela uste al du?! Suaren gainean jauzi egin duen batean, puzkertxo batek ihes egin dio, eta brokoli asko jan ostean izan denez, gaseoso samarra ateratzen zaitu gizaioari, eta, jakina, su hartu dio... Zein da bere itzal zuzena?

Pelloziri Sutan, Labirintzoan

Ai ene, Pelloziri sutan dago. Bere txokurrak—Alaitz du izena—sekulakoa egin dizkio: pilota hautsi (1), madalenak lapurtu (2), izozkia lurrera bota (3) eta etxean kaka egin (4). Lagun iezaiozu txokur bihurri hari harrapatzen, urrutira ospa egin baino lehen. Zoaz lauki lauki, aipatutako segida errespetatuz. Banan-banan aurreratu behar dituzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginaz, baina inoiz ez diagonalean. Gero, pasatu dituzun laukietako hizkiak bata besteari atzetik jarri eta esatera bat agertuko zaizu. Idatz ezazu:

LIMEAREN HASERREA EZ DA IZATEN LUZEA

Gure aspaldiko arbasoek ez zuten guk bezalako hitz egiten, ez horrelak. Baina bada truku bat ama-alaba hauek esaten ari direna ulertzeko.

QHQAMWVWA, YVAMWVWVY!
WWWLUSQHQTE DUTWWW
SYVEKLUHQHLAKOYV
AURWVWIKLUNYVYZA
EGYVNVGO
DUHQDALARWWW
QHQGALRWVW

WWWGALRYVVKO
QHQIMEWVWWEK
YVEZ DAKIYVTEHQH
ZER YVAMWVWVWVY
NAGLWVWVWVWVY
ARQHQRETA
BEREQHQGA-
NATZEWVWVWVW

Ezaba itzazu WWW, YV eta QHQ guztiak eta hortxe agertuko zaizkizu esaldiak.

Mezu gordea

Plazan Bazan 10/11. orrialdeetako soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabeiltza. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaeren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez aritzeko 616273785.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. Orduka zein interna

aritzeko disponibilitatearekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurilaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurpildun aukia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko sopoatea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).



Bera Bera emakumezkoen eskubaloia taldearen entrenamendu saioa ikusteko aukera izan zuten martxoaren 12an Oiarde kirolegiko pista joandakoek.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 21	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 22	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 23	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 24	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 25	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Asteartea, 26	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Asteazkena, 27	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 28	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 29	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 30	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 31	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Eskubaloia Oiardon

Martxoak 23, larunbata

- 10:00 Kadete neskek: Usurbil K.E.-Aloñamendi
- 11:30 Infantil neskek: Usurbil K.E. B-Orio Eragin
- 15:45 Jubenil neskek: Usurbil K.E.-Orio Eragin

Martxoak 24, igandea

- 11:00 Kadete mutilak: -Usurbil K.E.
- Larraioz Zarautz ZKE

Futbol partidak

Martxoak 23, larunbata

Haranetik kanpo:

- 12:10 Kadete neskek, Donostiako Berion
- Antiguoko KE B
- Usurbil FT
- 15:30 Jubenilak, Errenteriko Beraunen:
- Orereta Kafea FC
- Usurbil FT

Martxoak 24, igandea

Haranetik kanpo:

- 11:00 Kadete mutilak, Astigarragako Zarkumendegin:
- Astigarraga Mundarro FKE B
- Usurbil FT B
- 13:15 Infantil mutilak, Donostiako Cesar Benito futbol zelaian:
- Lengokoak SD-Usurbil FT B
- 16:00 Kadete mutilak, Oiartzungo Karla Lekuonan:
- Oiartzun KE B-Usurbil FT.

Haranen:

- 11:00 Kadete neskek: Usurbil FT-Urnieta

HILDAKOAK



Simona Maiz Labaka
Martxoaren 12an hil zen, 96 urterekin.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 22

USURBIL Tertulia filosofikoa

Partaide kopurua: 15 pertsona.
Izen-ematea: usurbilkultura.eus
plataforma.

18:00 Potxoenean.

AGINAGA Aginagako Herri Kooperatibaren lehen batzar orokorra

Estatutuen onarpena eta jarraitu beharreko hurrengo urratsak eztabaidatuko dituzte.

19:00 Eliza Zaharrear.

LARUNBATA 23

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" eta Chillida Lekura bisita gidatua

Gehienezko bisitari kopurua: 14.
Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus
11:00-13:30 Sutegin.

KALEZAR Pelaioenearen irekiera

12:30 Irekiera herrikoia.

IGANDEA 24

USURBIL Kantu-jira

12:00 Mikel Laboa plazan.

USURBIL "Olagarroa" antzezlana

Aktoreak: Maitane Perez, Nerea Arriola, Olatz Beobide.

18:30 Sutegin.



Miren Azkarate Sutegin izango da ostegun honetan.

"Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak" liburua aztergai

Aitzaga elkarteak 'Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak' liburuaren inguruko solasaldia antolatu du ostegun honetarako. Miren Azkaratek idatzi du eta Sutegin eskainiko duen hitzaldian Joseba Sarrionandia idazlea izango du alboan.

Liburu honetan, euskal iheslari eta deportatuen seme-alaben kontakizunak batu ditu.

Venezuela, Mexiko, Iparralde, Kuba, Suitza, Cabo Verde... Ikusezin izateari utzi nahi dioten bizipenak batzen saiatu da Azkarate.

Liburu-egilea bera bezala, Joseba Sarrionandiak ere 36 urte eman zituen erbestean.

Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta Aitzaga elkartearen 30. urteurrenaren baitan antolatu da.

'Komunikazioa familian' hitzaldia

Komunikazio enpatikoa eta asertibitatea zer diren eta zertarako balio duten ulertzeko gakoak eskainiko ditu Leire Cano adituak. "Hitzekoa ez den komunikazioaren kontzientzia ere hartu, emozioak eta beharrak identifikatzeko trebatu, baliabide praktikoak ezagutu eta egunerokoan sortzen diren egoerak landu". Ostegun honetan, hilak 21, 18:00etan Potxoenean.

Aitzel Iriondoren erakusketa Artzabal

Lasarte-Oriako euskal presoaren sorkuntza lanen bilduma ikusgai jarri dute Gure Pakea elkarteak Artzabal jatetxean. Hamabost urte daramatza espetxean Iriondok. Iazko abenduan Lannemezanetik Martuteneko espetera gerturatu zuten.

Errenta aitortzeko garaia

Apirilak 8-uztailak 1: Proposamenak onartzea.

Apirilak 11-uztailak 1: Internet bidezko aitortpenak.

Apirilak 16-uztailak 1: Errenta mekanizatu-ko aitortpenen aurkezpena.

Informazio gehiagorako:
Telefonoz: 943112111.
E-postaz: gipuzkoa@gipuzkoa.eus



ile apaindegi mistoa

GOLDWELL ELUMEN

Azkeneko produktu eta teknikak!

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

G15 GIPUZKOA HIGIEZINA ELKARTEA

G15 USURBIL

HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIKUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

ORIANTE BHI

www.oriarte.hezkuntza.net

BATXILERGOKO-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25

Zatuz gu ezagutzera !!

Ate irekiak Apirilaren 10ean 17:30tan

ORIANTE Institutua

Larrekoetxe eraikina
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92

BUKAERA BESTIA BAIONANI!

MARTXOAREN 24AN

- Janaria
- Eklaria
- Korrika denda
- Txartellegia
- WC Komunak
- Haurren xokoa
- Tonbola
- Puntu ubela



1 NAIZ GUNEA (SAN ANDRES PLAZA)

-
-
-
-

13:45 ANJE DUHALDE
16:00 XUTIK
18:15 XIBEROOTS
20:30 SFM

2 MERKATU PLAZA

-
-
-

11:00 Kuxkuxtu
13:45 IBIL BEDI
15:30 FRIKUN
17:30 BILLABAL

3 ETXEPARE INSTITUTUA GUNEA (XAHO KAIA)

-
-
-
-

13:30 Zikiroa
16:00 Pontx pailazoa

4 PATXA PLAZA

-
-

14:00 HAIRA
15:30 ZETKIN
17:30 TOC
19:15 NAKAR
21:00 KUMA
NO MOTOR
22:45 AKTS

23. korrika

KORRIKA BUKAERA

KORRIKA "LAGUN OSTATUAK"

- 1. KALOSTRAPE *æk*
- 2. BAR BASQUE
- 3. ZAMAI
- 4. SOINUA
- 5. RELAIS DES HALLES
- 6. CAFÉ DES PYRENEES "XINA"
- 7. HANGAR
- 8. LA PETROLETTE
- 9. SAN NICOLAS
- 10. VICTOR HUGO
- 11. BAB CAFE
- 12. KATIE DALY'S
- 13. TALOKA
- 14. SANKARA

ETA HAINBAT ELKARTE LAGUNTZAILE

KARRIKETAN

- 10:30 Patxi ta konpania Gambetta plaza
- 13:30 Topatopia batukada Patxa plaza
- 14:00 Itakllok Bar Basque
- 14:00 Patxaranga Zamai
- 18:00 Kuxkuxtu Xaho kaia

23. korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra